



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko otsailaren 26a

24. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako 2016ko Kontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako arreta soziosanitarioko sistema integratua arautzen duena. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategiko berri bat presta dezan, egoera berri batean jarriko duena bere ezarpena plangintza egituratu eta doitu batekin jorratzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahal diren neurri guztiak ezar ditzan Belateko eta Almandozko tuneletan egitekoak diren obrek ukitzen dituzten bizilagun eta erabiltzaileei eraginen zaien kaltea gutxitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da soldata-berdintasunerako lege bat onets dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizaintzako gradua euskaraz eskain dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletetarako aparkaleku seguruen premiarri erantzuna eman diezaion Nafarroako Ospitalegunean eta Nafarroako Gobernuaren egoitzetan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko politika publikoak aplikatu ditzan. Eskubide Sozialetako Batzordeak ezetsi egin du (6. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako 2016ko Kontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko otsailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2016ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako 2016ko Kontu Orokorrei buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua

Ekonomia eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2016ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako izapidetak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2016ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Nafarroako 2016ko kontu orokorrak, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontuon edukia Nafarroako Atarian emanen da argitara.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako arreta soziosanitarioko sistema integratua arautzen duena.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko otsailaren 15ean, erabaki du aintzat ez hartzea Nafarroako arreta soziosanitarioko sistema integratua arautzen duen Foru Lege proposamena, zeina Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2018ko

urtarrilaren 12ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategiko berri bat presta dezan, egoera berri batean jarriko duena bere ezarpena plangintza egituratu eta doitu batekin jorrazteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko otsailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategiko berri bat presta dezan, egoera berri batean jarriko duena bere ezarpena plangintza egituratu eta doitu batekin jorrazteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak apustua egiten du Nafarroako Unibertsitate Publikoak gehigarri bat sar dezan NUPen IV. Plan Estrategikoan (2016-2019), zeinetan kontuan hartuko baita Tuterako campusaren garapena, bai eta Medikuntza Gradu berri bat ezartzea ere.

Iruñean, 2018ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahal diren neurri guztiak ezar ditzan Belateko eta Almandozko tuneletan egitekoak diren obrek ukitzen dituzten bizilagun eta erabiltzaileei eraginen zaien kaltea gutxitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko otsailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahal diren neurri guztiak ezar ditzan Belateko eta Almandozko tuneletan egitekoak diren obrek ukitzen dituzten bizilagun eta erabiltzaileei eraginen zaien kaltea gutxitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ahal diren neurri guztiak ezar ditzan Belateko eta Almandozko tuneletan egitekoak diren obrek ukitzen dituzten bizilagun eta erabiltzaileei eraginen zaien kaltea gutxitzeko.

2. Batzorde bat sor dezan, toki entitateak, garraiolarien elkarteak eta zerbitzuen sektoreko arduradunak bilduko dituena, egin behar diren jarduketak koordinatzeko”.

Iruñean, 2018ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da soldata-berdintasunerako lege bat onetsi dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko otsailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Estatu-ko Gobernua premiatzen da soldata-berdintasunerako lege bat onetsi dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Soldata-berdintasunerako lege bat onetsi dezan, Islandiako Gobernua eredutzat hartuz.

2. Behar diren neurriak abiaraz ditzan, dauden genero-arrailek ezabatze aldera, eta neurri horie-

tarako aski den hornidura ekonomikoa ezarri dezan.

3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.2 artikulua alda dezan, helburua izanik 100 langile baino gehiagoko plantilla duten enpresek berdintasun plan bat presatu eta ezarri zeko betebeharra izatea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Behar diren neurriak abiaraz ditzan, 250 langile baino gehiago duten erakunde publikoek urtebeteko epean berdintasun plan eguneratu bat prestatu dezaten.

Iruñean, 2018ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizaintzako gradua euskaraz eskaini dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko otsailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizaintzako gradua euskaraz eskaini dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen ditu aukera eskaini dezaten erizaintza gradu-ko ikasketak ere, bai eta eskaera handiko gainontzeko ikasketak, euskaraz egiteko, eta horretarako eman behar diren urrats guztiak ahalbidetu ditzaten aipatu helburua lortu ahal izateko.

Iruñean, 2018ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletetarako aparkaleku seguruen premiari erantzuna eman diezaion Nafarroako Ospitalegunean eta Nafarroako Gobernuaren egoitzetan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko otsailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bizikletetarako aparkaleku seguruen premiari erantzuna eman diezaion Nafarroako Ospitalegunean eta Nafarroako Gobernuaren egoitzetan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Ospitalegunearen zuzendaritza premiatzen ditu hartu beharreko neurriak har ditzaten Nafarroako Ospitalegunera lan egitera nahiz bisita egitera bizikletaz joan nahi duten guztiek gutxienerako segurtasun-baldintzetan utzi ahal izan dezaten bizikleta, lapurretarik izan gabe. Hartara, eta zehaztearren, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Ospitalegunearen zuzendaritza premiatzen dira:

1. Lau hilabete igaro baino lehenago proiektu bat gara dezaten, Nafarroako Ospitalegunearen barruan bizikleta-aparkaleku babestu eta bideozaintzadunak instalatzekoa, ahalmena izan den duena, gutxienez ere, gaur egun gisa horretako instalazioei dagokienez dagoen eskariari erantzuteko.

2. Beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak taxutu ditzaten inbertsioari ekiteko eta proiektu hori garatzeko; ahal den neurrian, 2018an bertan.

3. Langileak eta oro har jendea joaten den gune guztietan gisa horretako aparkalekuen egoera zorrotz berrikus dezaten, inbertsio-plan bat garatze aldera, zeinean aurreikusiko baita gune horietan edo horien ingurumarietan gisa horretako instalazioak arian-arian paratzea”.

Iruñean, 2018ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko politika publikoak aplikatuz.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2018ko otsailaren 20an egindako bileran, ezetsi egin du Nafarroako Gobernua seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko politika publikoak aplikatuz premiatzen duen mozioa, zeina Mónica Domenech Linde

andreak aurkeztu baitzuen eta 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

